



Lehiaren Euskal Agintaritzak Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) Ierrokatu ditu bere Plan Estrategikoa eta 2021eko Ekintza Plana

2021eko Ekintza Plana definitzeko orduan Nazio Batuen 2030 Agendan jasotako 17 GJHak hartu ditu erreferentzia gisa

BILBON, 2021eko otsailaren 5ean / Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) txertatu ditu bere Plan Estrategikoan eta 2021eko Ekintza Planean, eta bere jarduera-eremuan estrategia definitzean irizpide horiek kontuan hartzen dituen lehen erakunde bihurtu da.

LEA/AVCren estrategian GJHak integratzea funtsezko elementua da bere jarduketek erakundeetan duten eragin positiboa areagotzeko eta interes-talde guztiekiko harremanak kudeatzeko. LEA/AVCk Nazio Batuen 2030 Agendan jasotako 17 GJHak erreferentzia gisa izan ditu 2021eko Ekintza Plana definitzeko orduan.

2021ean zehar, Euskal Autonomia Erkidegoko ekintza instituzionalari jarraipena emango zaio, eragile ekonomikoetara eta erakundeetara hurbilduz. LEA/AVCk autonomia erkidegoetako lehia-agintaritzekin eta Lehiaren Merkatuaren Batzorde Nazionalarekin (MLBN) duen lankidetzan sakonduko du lan egiteko formula bateratuak bilatzeko. Era berean, aurreikusita dago nazioko eta nazioarteko kongresu eta foroetan parte hartzea, Lehiaren Defentsari buruzko Lege berria onartzeari begira lan instituzionala gauzatzea, eta webgune berria abiaraztea, gardentasuna eta herritarrentzako informazioaren eskuragarritasuna sustatuz.

Merkatuetako lehiaren defentsari dagokionez, lehiaren aurkako jardunbideak hautemateko baliabide propioak indartuko dira, kartelei dagozkienak batez ere, jokabiderik larrienak direlako.

Lehiaren sustapenari dagokionez, aurtun Euskadiko sektore ekonomiko garrantzitsuei buruzko azterlanak egingo dira. Erregulazioari dagokionez, Euskadiko Erregulazioa Hobetzeari buruzko azterlana gauzatuko da, merkatuko lehia- eta gardentasun-baldintzak sustatuz, bermatuz eta hobetuz. Kontratazio publikoari dagokionez, legeriarekin bat datozen kontratazio publikoko jardunbide jasangarriak sustatuko dira. Euskadiko laguntza publikoei buruzko txosten bat egiteko prozesua hastea eta Euskadiri nabarmen eragiten dioten kontzentrazio ekonomikoko eragiketaz aztertzen jarraitzea ere aurreikusita dago.

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritzak, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta autonomia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta



gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketa ekonomikoei dagokienez.

2021eko Ekintza Plana:

https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/memoria_actividades/eu_jarduera/EkintzaPlana2021-ODS.pdf